

noaua



**Koxme Yagüez Usurbilgo
maisu fusilatua oroitu dute
Udarregi ikastolan**

**Santuenea bizigarriago bat
ekarriko duen Auzo Plana
aurkeztu dute**



Kalezarko Jai Batzordea:

**“Pandemia aurreko eredua jarraituz
antolatu ditugu aurtengo festak”**

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas 2022

udaleku irekiak

Udajolaseko guraso bilera

ekainaren 21an (asteartea)

izango da **Sutegin,**

arratsaldeko **17.00etan (HH)**

arratsaldeko **18:00tan (LH)**

noqua



Ustaritzgo Udala

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea

ekainaren 22tik 30era

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

- **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)
- **EUSKARA TAILERRA (MAILA 0, 1 ETA 2)**
- **GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT**
- **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08



ANORGA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza • segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak • ispiluak
- barandak • kristal mota guztiak...

943 37 17 33- 610 45 93 45



Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

Albisteak iruditan

Guraso bilera, Ziortzak deituta

Ziortzako kanpaldirako hilabete eskas falta da. Abiatu aurretik, gazte elkarteko kideek gurasoentzako bilera bat iragarri dute. Ekainaren 17an ostirala, Sutegin batuko dira arratsaldeko 18:00etan.

Guraso bilera egiteko dataz gain, kanpaldiaren muntaia eta desmuntaia egiteko egunak ere iragarri dituzte. Kanpaldia altxatzeko zein jasotzeko, laguntza premian izango dira. Ziortzakoei bat egiteko asmoa duten boluntarioek email bat idatzi behar dute honako helbidera: ziortzage@gmail.com

Ekainaren 17an ostirala, guraso bilera

Kanpaldira joango direnen gurasoak bilera batera deitu dituzte. Ekainaren 17an ostirala, arratsaldeko 18:00etan Sutegiko auditorioan.



Guraso bileraz gain, kanpaldiaren muntaia eta desmuntaia egiteko egunak ere iragarri dituzte.

Kanpaldiaren muntaia eta desmuntaia

Ekainaren 25ean larunbata egingo dute kanpaldiaren muntaia. Desmuntaia berri, abuztuaren 6an larunbatarekin.

Boluntarioen laguntza beharko dute bi kasuetan. Animatzen bazara, Ziortzakoei idatzi helbide honetara: ziortzage@gmail.com

Laburrean

Intzidentzia, behera

6 Covid-19 kasu berri hauteman ditu Osasun Sailak iragan aste osoan Usurbilen, aurrekoan baino bi gutxiago. Beherantz egin du nabarmen baita, intzidentziak, 325,41etik 227,79ra murriztu da. Iazko azarotik herri honek ez du hain intzidentzia baxua izan.

Meditazio kontzertua

Marina Pintosekin meditazio kontzertua antolatu dute ekainaren 25ean, eguerdiko 12:00etan Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. Sarrera, 10 euro. Aurrez egin behar da erreserba, telefonoz deituz edo emailez: 636 711 514 (Katia) / kaiztos75@gmail.com

Zikiro-janeko txartelak

Jaietako zikiro-jana uztailaren 2an larunbata egingo da, eguerdiko 14:00etan hasita. Txartelak lehenago jarriko dira salgai: ekainaren 19an igandea, eguerdiko 12:30ean Aitzaga elkartearen, Askatasun plazan. Prezioak: Helduek, 30 euro. Ikailek eta langabetuek, 20 euro.

noaia

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaia.eu /// www.noaia.eu
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaia.eu

Banaketa: Iñaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

lbilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:

erredakzioa@noaia.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Usurbilgo Udala

Euskal Herreria!



Luis Aranalde

Bi efemeride ospatzen ditu Donosti Ereski Gregoriar Scholak: Batetik Donosti Ereski elkartearen sorreraren 50. urteurrena, eta bestetik, Orixeren heriotzaren 60. urteurrena. Hala, poeta esker onez omendu nahi izan dute disko-liburuan: "Ez dugu zalantzarik Orixeren itzulpenak gregorianoz kantatzean bizi berri bat hartuko duela zaletuen artean".

Elkarteko kideek azaldu dutenez, Orixek 1949an *Urte guziko meza-bezperak* liburuan urteko meza eta bezperak itzuli zituen latinetik euskarara, Euskal Elizak eta bide batez, euskal gizarteak erabil zitzen. "Musika gregorianoan kantatzen ziren hitzak, poesiak, Orixek euskarara zoragarri itzuli zituenak, euskaraz kantatu nahi ditugu".

Proiektu hau herriari zuzenduta dago. "Euskal Herriko koruetan eta elizetan erabil daitezkeen kantuak dira, perfektuki kanta baitaitezke". Gainera, gregorianoa euskaraz kanta daitekeela erakutsi nahi izan dute. "Askok uste dute gregorianoa latinez kantatzeko dela soilik, baina kanta liteke euskaraz eta hori erakutsi nahi dugu", dio abesbatzako zuzendariak. Orixek itzultako lanak berreskuratu ditu Donosti Ereski liburu batean eta berrogeita hamar kantu gregoriano bi diskotan.

Bikoitza izan da nire parte hartzea proiektu honetan: alde

Orixeren oparia, gregorianoa euskaraz



Orixek poeta omendu dute disko-liburu baten bitartez.

LUIS ARANALDE

"Jose Mari anaia eta biok askotan aritzen ginen solasean gure osabaren idazkien estiloaz, edukiaz, poesia onenez"

batetik abesti batzuk organoz laguntzea, eta bestetik, Orixekin izan nituen bizipenen berri ematea. Nire amona Frantxis-karen (amaren ama) anaia zen Orixek. Nahiko berandu eza-gutu nuen, izan ere, nomada gisa munduan zehar ibili zen ia bizitza osoan eta ni, berriz, kaputxino estudiantea, beraz, komentutik ateratzeko aukera gutxi garai hartan.

Gure harremanak 1958an hasi genituen. Urte hartan nire anaia Jose Mari erretore izendatu zuten Araman. Eta azkenengo lau urteak berarekin pasa zituen Orixek. Ni oporretan izanik etxean, anaiaren Parrokiara joan nintzen eta hantxe ezagutu

nuen gure osaba. Handik aurrera gure harremana estutzen joan zen eta nik uste bion musika zaletasunak lotu gintuela batez ere. Afal ostean musika klasikoa entzuten genuen askotan; berak oso gogokoak zituen musikari barrokoak: Bach, Haendel, Vivaldi eta garai hartako beste batzuk. Ni garai hartan erromantikoen zalea nintzen batez ere: Chopin, Liszt; gerora hasi nintzen benetan maitatzen Bachen musika. Orixek ez zen erromantikoen hain zale konposatzaile horien bizitza desordenatua, libertino samarra izan baitzen. Chopinen bizitza irakurtzen ari nintzen opor horietan eta ez leitzeko aholkatu zidan, "nire bokazioa arriskuan jarriko nuela eta". Moral aldetik nahiko estua, karratua, kontserbadorea zen gure osaba.

Karta mordo bat idatzi zidan lau urte horietan zehar. Gehienak gaztelaniaz. Grazia berezia zuen erdaraz ere. Oro har bere egunerokotasunaz idazten zidan;

eskutitz luze bat ere bidali zidan behin San Joan Gurutzekoa ulertzeko erregela batzuk emanez; "el maestro machaca" deitzen zion mistikoari.

Anekdotak batzuk ere kontatu ditut Donostiako kaiko San Padron eta Bilboko Sabino Arana Fundazioan egin ditugun aurkezpenetan. Besteak beste, Orixek Xabier Lizardi saria irabazi zuen 1961ean; bi mila pezeta. Bigarrena nire anaia Jose Marik: mila pezeta eta hirugarrena Lukas Dorronsorok: bostehun pezeta. Nire anaiak esan zion nonbait gure osabari, hurrengo lehiaketan iloba-bilobak irabaziko ziola; "habráse visto", idazten zidan gutunetako batean. Umore ederra zuen gure osabak. Bera jesuistetatik bidalia izan zen eta ni kaputxinoek bota ninduten. Bera-entzat trauma handia izan zen eta ni berriz, liberatua sentitu nintzen Horretaz ere toreatzen nuen.

Jose Mari anaia eta biok askotan aritzen ginen solasean gure osabaren idazkien estiloaz, edukiaz, poesia onenez. Anaiari "Miramar" olerkia gustatzen zitzaion gehien. Niri berriz "Jainkoagan bat". Zergatia galdetu zidanean hauxe erantzun nion: "motel, motel, bere musikaltasunagatik; olerki hori irakurtzen dudana bakoitzean, J.S. Bachen koral bat entzuten ari naizela iruditzen zaidak". Koldo Mitxelena esana da: "Orixeren poesiari musika dario".

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Umoreaz eta feminismoaz Ane Labaka eta Idoia Torregarairakin

Umorea disekzio-mahaiari: feminismitik eta euskaratik solasaldia Ane Labaka bertsolariarekin eta Idoia Torregarai umoregilearekin maiatzaren 12rako zegoen iragarrita, baina joan zen ostegunera, ekainaren 9ra atzeratu zuten hitzordua.

Ane Labakak ondutako "Algara mutilatuak" lana oinarri, umorea egiteko moduez eta haien ondorioez aritu ziren bi emakumeak "ikuspegi feministaren optika argigarritik". Suetegin harrera beroa izan zuen eta dozena bat pertsonarekin osatu zuten hitzaldia.

Umoregileen iritziak osatu
Ane Labaka bertsolariak sortutako lanak Euskal Herriko emakumezko umoregileen iritziak ere bildu ditu. Idoia To-



Umorea egiteko moduez eta haien ondorioez aritu ziren Ane eta Idoia.

SUTEGIKO HITZALDIAN

Ane Labakak ondutako "Algara mutilatuak" lana izan zuten abiapuntu

regarai izan zen lanaren berri izan zuenetako bat eta ideiak

eman zizkion aurrerago garatu nahi bazuen ere. Bien artean sortutako harremanean oinarritu zuten hitzaldia eta Ane Labakak eginiko lan teorikoagoari ikuspegi zabalago edo pertsonalagoa emateaz ardura zuen Idoia Torregarai.

Sexu aniztasunari buruzko jardunaldia

"Sexu aniztasuna herrietan: eta Usurbilen zer?" hitzaldi-tailerra antolatatu du Usurbilgo Udalak ekainaren 22rako. "Zerk egiten du LGBTIQ+ pertsonok herriak uzteko hautua hartzea? Zergatik 'ihes' egiten dugu hirietara? Zergatik da hain garrantzitsua geure komunitateak herrian bertan sortzea? Zer egin herriak LGBT+ pertsonentzat bizigarriago egiteko?". Azalpen honetatik abiatuta, Egoitz Albeniz Hiruki Larroxa kooperatibako kideak hitzaldi-tailerra eskainiko du, 17:30-19:30 artean, Potxoenean.

Sareren mobilizazioa

Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea aste-bete barru, ekainaren 24an arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Bigarren eskuko liburu azoka Oriarte institutuan

Oriarte institutua Lasarte-Oriandago baina Usurbilgo ikasle askok ikasten dute bertan. Oriarteko Larrekoetxe eraikinean egingo da azoka eta DBH3tik Batxillergoko 2. mailara arteko ikas-materiala saldu zein erosteko aukera egongo da. Azoka ekainaren 23an izango da baina liburuak aurretik eraman behar dira.

Liburuak entregatzeko eguna
Ekaina 21, 16:00/18:00.

Liburuak erosteko eguna
Ekainak 23, 16:00/18:00.

Dirua jasotzeko eguna
Ekainak 24, 16:00/17:30.

Kontuan hartzekoak

Oriarte institututik aditzera eman dutenez, guraso elkarteko bazkideek lehentasuna edukiko dute liburu azokan. Bazkide ez direnek hain zuzen, ordutegi hauze izango dute ekainaren 23an: 17:30etik 18:00etara.

■ Bazkide ez direnentzat, liburu bakoitza 5 euro garestiago izango da eta saltzerakoan 5 euro gutxiago jasoko dituzte.

■ Ingeles ikasgaiari dagokionez, *student book*-a baino ezin da saldu, eta ez du ariketarik eginda eduki behar.

■ Liburuak egoera onean egon beharko dute, puskatu gabe, eta erabilgarri. Egoera onean dauden edo ez Oriartekide guraso elkartek baloratuko du.

■ Liburuak gordailu moduan utziko dira, horren frogagiriarekin batera.

■ Prezioa: gaur egun liburu bakoitzak duen prezioaren erdian baloratuko dira, gutxi gorabehera.

■ Dirua emateko egunean jasotzen ez diren liburuak/diruak, Oriartekide guraso elkartek jasoko ditu eta aurretik kontrakoa esaten ez bada, guraso elkartearen ondare bihurtuko dira.

Liburu berriak non erosi?

Oriartekidek aurtan ez du liburu berririk salduko. "Horregatik, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo liburu-dendetan erostera gonbidatzen zaituztegu", guraso elkartekoek ohar bidez aditzera eman dutenez.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Atari
Parranda
Iatexea

· bazkariak EGUNERO
· afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Enara Arruti: “Finlandian, Euskal Herrian baino gehiago lantzen dute alderdi praktikoa”

Ikasketek eraman dute Helsinkira Enara Arruti usurbildarra. Otsaila hasieratik Finlandiako hiriburuan ari da ikasketak amaitzen. NOAUA!rekin izan da esperientzia berria partekatzen.

NOAUA! Zerk eraman zaitu Finlandiara?

Enara Arruti: Otsaila hasieran iritsi nintzen hona. Gradu azken seihilekoa egiten ari naiz hemen. Ingenieritza diseinu industrial eta produktuen garapena ari naiz ikasten eta Gradu Amaierako Lana (GRAL) egitera etorri naiz Helsinkira.

Hementxe emango ditudan hilabete hauetan, GRAL hori egin behar dut eta horretarako, egunero zortzi ordu igarotzen ditut unibertsitatean ikerketa egiten. Talde eder bat daukate eta ni haiei laguntzen ari naiz eta, aldi berean, aipatu dudan GRAL hori osatzen ari naiz.

Jende askok Erasmus esperientzia gradu hirugarren urtean egiten du. Zuk berriz laugarrenean, azken txanpan beraz. Joan zen urtean ezin izan zenuen egin edo horrela egitea erabakita zeneukan ha-



“Gradu Amaierako Lana egitera etorri naiz Helsinkira”.

ENARA ARRUTI

“Guraso izatean, lan baldintza oso onak daukate finlandiarrek eta amatasun zein aitatasun baimenak oso malguak dira”

sieratik?

Nik Mondragon Unibertsitatean ikasten dut eta bertan,

ingenieritzako gradu gehienetan, laugarren urtean egiten da Erasmus. Laugarren urtean baino ez digute uzten kanpora joaten.

Ezagutzen dut jendea EHU ikasten duena edo Deuston eta joan zen urtean Erasmus egiteko aukerarik izan ez zena eta aurtan egiten ari dena, baina nire kasuan pandemia izan edo ez, aurtan egin behar nuen.

Finlandiako hezkuntza sistema txalotua da mundu zaballean munduko metodologiarik onenetariko erabiltzeagatik. Unibertsitatean ere nabari da metodo ezberdin hori ala hurrengan baino ez da horrela?

Ez dakit klaseak emateko modua nolakoa den, ni lanean ari baina ikerketa egiten. Bertako lagunek esan didate eskolara joaten gu baino berandago hasten direla gehienetan. Guraso izatean, lan baldintza oso onak daukate finlandiarrek eta amatasun-baimena zein aitatasun-baimena oso malguak dira. Ondorioz, eskolan zazpi bat urterekin hasten dira askotan.

Hala ere, oso txikitatik etxean haurrei gauzak erakustera ohituta daude eta eskolara hasterako irakurtzen jakiten dute ume gehienek. Unibertsitatean, askoz gehiago lantzen dute alderdi praktikoa guk baino. Irakasleek azalpen luzeak eman beharrean, talde lanari garrantzia gehiago ematen diote. Lagunak dauzkate hemen, unibertsitatean ikasten ari direnak eta hori nabari dute. Hala ere, hemen lan karga gehiago daukate gure unibertsitatean baino.

“Gure lan-taldean txinatarrak dira gehienak”

NOAUA! Erasmus garaian, euskaldun edo espainiarrekin elkartzeko ohitura izaten du jende askok. Zeure kasuan ere hala da ala finlandiarrekin ematen al duzu denbora gehiago?

Enara Arruti: Asteburuetan planak egiteko bi taldetxo dauzkate. Erdaldun batzuekin

ibiltzen naiz eta euskaldun batzuk ere ezagutu ditut. Lehenak ikasten ari dira edo praktiketara hona etorritakoak dira, eta euskaldunak berriz, ni baino zaharragoak dira eta bertan bizi dira lan arrazoiengatik. Unibertsitatean, lanean ari naizen departamentuan nazioarteko jende asko dago. Gure lan-tal-

dean gehienak txinatarrak dira, baina bulegoan denetarik dago: finlandiarrek, asiarrak, amerikarrak... Denetik dago.

Helsinki ere nazioarteko jende asko ikusten al da?

Atentzioa deitzen dute bertakoek, ilehoriak eta ezberdinak baitira. Hala ere, mundu

zabaleko jendea ikusten da kalean.

Kontuan hartu behar da ingelesez oso ondo hitz egiten dutela bertakoek, oso maila altua daukate. Oso heldua den jendeak ere ezinhobe hitz egiten du ingelesez eta komunikatzeko ez daukagu inolako arazorik.

“Ezagutzen ez duten jendearekin hitz egiteko ohiturarik ez dute”

NOAUA! Zer moduz moldatzen zara ingelesarekin?

Iritsi aurretik nahiko ahaztuta neukan. Urte asko ziren jada akademia amaitu nuenetik. Pixkanaka hobetzen ari naiz eta hasieran kosta egin bazitzaidan ere, lanean dena ingelesez hitz egin beharrak gehiago praktikatzeko aukera eman dit eta eroso sentitzen naiz hizkuntza horrekin.

Iparraldeko herrialde horietako biztanleak oso hotzak eta serioak direla iruditzen zaigu. Hala al dira?

Hasiera batean, kanpotarrei hitz egitera ez dira animatzen. Zerbait kulturala dela uste dut, eta ez daukate ezagutzen ez duten jendearekin hitz egiteko inolako ohiturarik. Ikuspuntu horretatik gu irekia goak gara, gehiago animatzen gara ezezagunekin hitz egitera finlandiarrak baino. Hemengoek ez daukate ohitura hori eta kalean ez diote elkarri hitz egiten. Behin ezagutzen dituzunean, ordea, gure oso antzekoak direla esango nuke. Saunak aprobetxatzen dituzte ezezagunekin harremantzeko. Sauna publiko batera joatean, denak animatzen dira ezeza-



“Ordutegi oso ezberdina dute. Finlandian, 11:00k aldera bazkaltzen dute eta 16:30-17:00 aldera afaltzen dute”.

ENARA ARRUTI

“Euskaldunak irekiagoak gara. Finlandiarrak baino lehenago animatzen gara ezezagunekin hitz egitera”

gunekin hitz egitera, eta oso deigarria egiten zait, kalean

ez baitute hitz bat bera ere egiten ezagutzen ez duten horiekin. Saunetan erabat irekitzen dira eta parrandan ere berdin. Behin alkohol pixka bat edanda, aldartea aldatu egiten zaie.

Pandemia garaian tokatu zaitu Erasmus esperientzia bizitzea. Nola daude orain neurriak

han?

Gu iritsi ginenean oraindik neurri asko zeuden indarrean. Tabernak oso goiz ixten zituzten eta dendak ere bai. Kalean ez zen inor egoten ez zegoe-lako inora sartzerik eta hemen hotz handia egiten du neguan. Otsaila amaieran neurri horiek kendu egin zituzten eta nahiko egoera normala da nagusi ordutik. Musukoa ez da derrigorrezkoa ez kalean ez leku itxietan, baina gomendatu egiten dute. Beraz, supermerkatuetan edo garraio publikoan denetarik ikusten da; batzuk musukoarekin ibiltzen dira eta beste batzuk gabe. Bakoitzaren erabakiaren esku dago erabaki hori.

Finlandiatik itzultzen zarenerako zein asmo dituzu?

Printzipioz master bat egingo dut Mondragon Unibertsitatean, ingeniari-tza industrialari buruzkoa. Bi urteko masterra da eta Arrasaten egingo dut.

Ondoren, bigarren urtean berriz ere aukera izango dut masterreko proiektua kanpoan egiteko hala nahi izanez gero, baina hori aurrerago erabakiko dut.

“Hotz handia egiten du hemen”

NOAUA! Zerbait botako duzu faltan etxetik.

Enara Arruti: Lehenik eta behin, janaria. Hemen hotz handia egiten du eta ez dago ia haragirik. Behiak edo txerriak hazteko ez da eguraldi egokia. Haragirik ez dago eta jateko ohiturak ere ez dira berdinak. Ia janari guztia inportatua da: barazkiak, haragia... Jaki asko bota-

tzen ditut faltan. Eguraldia ere botatzen dut faltan. Badirudi orain udaberriarekin pixka bat epelago egiten duela eta eguna ere luzatzen ari dela. Otsailan izugarritzko hotza egiten zuen, oso goiz ilundu eta ia egunero elurra. Oso eguraldi tristea zen. Eguzkia faltan botatzen nuen. Pixkanaka hori hobetuz joan da udaberria iritsi ahala eta orain askoz ere hobeto.

Jateko ohiturak ezberdinak direla aipatu duzu. Zein zentzutan?

Ordutegi oso ezberdina dute. 11:00k aldera bazkaldu egiten dute eta 16:30-17:00 aldera afaltzen dute. Patata izugarri jaten dute, Europako beste leku askotan bezala. Arrainari dagokionez, izokina baino ez daukate eskuragarri. Hori da ia jaten duten arrain bakarra.

Haragia, berriz, oilaskoa jaten dute, baina hortik aurrera gutxi gehiago. Hala ere, guk inoiz jaten ez dugun haragi bat jaten dute; elur-oreinaren haragia, hain zuzen. Nahiko garestia izaten da, eta beraz, ez dute egunero jaten, baina bertako gastronomiako plater berezi bat da. Egun berezietan edota ospakizunetan jaten dute, batik bat.

“1936ko haurren lekukotza jaso nahi dugu Beterri-Buruntzan”

1936ko Gerran erbesterako bidea hartu behar izan zuten haurren oroimena berreskuratzeko ahaleginean dabilta, eta Buruntzaldeko herritarrei deia luzatu die Intxorta kultur elkarteak.

Zein da zuen egitasmoaren helburua?

Juan Ramon Garai: 1936ko kolpe militarrek eraginda, Gipuzkoatik erbestera ihes egin behar izan zuten umeen memoria berreskuratzea. Horretarako, Intxorta 1937 kultur elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, egitasmoa abian jarri zuen orain bi urte, eta horretan gabiltza. Gaia lantzeko 13 laguneko taldea sortu dugu: sei pertsona Intxorta taldekoak gara, eta horietaz gain, beste zazpi pertsona gai honetan esperientzia eta interesa dituztenak dira. Bestalde, eskertzekoa ere bada herri askotan lanean dabilzan elkarte memorialistek eskaini diguten laguntza.

Orain arte, sei mila eta bostehunetik gorako zerrenda osatu dugu. Horiei guztiei buruzko makina bat informazio (aipamen hutsak, testigantza pertsonalak, artxiboetako informazioa, agiriak, argazkiak...)



“Helburua da Gipuzkoatik erbestera ihes egin behar izan zuten umeen memoria berreskuratzea”, Juan Ramon Garaik adierazi digunez. Elkarrizketa eta argazkia: Aiurri aldizkaria.

JUAN RAMON GARAI

“Intxorta 1937 kultur elkartearen ekimen honek Gipuzkoako Aldundiaren laguntza jaso du”

jaso ahal izan dugu, baina kontziente gara oraindik ere ez garela guztia jasotzera iritsi, ezta gutxiago ere.

Beterri-Buruntzari begira, bulegoa jartzeko asmoa daukatzue hurrengo egunetan.

Abian jarritako datu bilketari eutsita, Gipuzkoan eskualdez eskualde arreta-bulegoak irekitzen ari gara azken aldian, orduko haurrak nahiz edozein eratako informazioa eskaini dezaketen pertsonak hurbil daitezten bertara. Hortaz, eskualdeko herritar guztiei lu-

zaten diegu gonbitea, edozein moduko datua edukiz gero bertara dadin. Buruntzaldeko herritarren ahalik eta inbentariorik osatuena nahi genuke egin, Gipuzkoako datu-basera batzeko.

Noren datuak ari zarete biltzen, herritik ihes egin behar izan zuten haur guztiena, ala, Frantziako estatura, Ingalaterrara, Errusiara, Ameriketara... ihesi joan zirena?

Zehazki, 1936ko kolpe militarra hasterakoan erbestera ihesean joan ziren 0 eta 16 urte bitarteko ume eta gaztetxoak, eta baita ere, erbestean jaio zirenak 1939. urtera arte. Gerrako haur gehienak Frantzia eta Kataluniara (Valentziara ere bai) joandakoak dira. Halaber, Ingalaterrara, Errusiara eta Belgikara nahiz Ameriketara (Mexiko, Argentina, Txile, Venezuela, Kuba, Errepublikak Dominikarra...) joan zirenak.

Egia da badaudela beste ume asko beren herrietatik ihesi joan zirenak, Bizkaira, Santanderrera nahiz Asturiasera, baina ez zuten muga zeharkatu. Ibilbide hori egin zuten haur eta gaztetxoek izenak ez ditugu jasotzen printzipioz.

“Ehunka batzuk izan ziren eskualde honetan”

Orain arte bildu duzuen informazioaren arabera, Buruntzaldeko herrietatik zenbat haurrek egin behar izan zuten ihes, bizitokia utzita?

Oso zaila da zenbakiak zehaztea, baina ehunka batzuk izan ziren seguruenera. Orain arte jaso ditugun erreferentziak, 276enak dira; 133 emakumeak, 143 gizonak. Hona datuak herriz herri, eta sexuen

arabera banatuta: Hernanin 109 (53, 56), Andoainen 75 (32, 43), Lasarte-Orian 62 (37, 25), Astigarragan 15 (3, 12), Urnietan 15 (9, 6), eta azkenik, Usurbilen 1 (emakumea).

Zer nolako harrera egin diote herritarrek informazioa jasotzeko guneari, beste udalerrietan?

Irunen, Eibarren, Sorluzen

eta Tolosan irekitako arreta bulegoak oso lagungarriak egin zaizkigu zerrendak osatzeko, elkarrizketa berriak egiteko, argazkiak eta agiriak jasotzeko... Egia esan, herritarrengana hurbiltzea da gure asmoa eta komunikabideen eskutik lortzen ari garen oihartzuna ezinbestekoa bilakatzen ari da gure egitasmoaren berri zabaltzeko.

Datu bilketa Andoainen

Andoainen jarriko dute bulegoa, Udal Artxiboan. Ambrosia Olabide eraikina, San Martin elizaren atzealdean.

■ Egunak: Ekainak 16, 21 eta 30.

■ Orduetgia: 10:00-12:00 /18:00-20:00.

■ Harremanetarako:

678 242 031

intxorta1937@gmail.com

Koxme Yagüez Usurbilgo maisu fusilatua oroitu dute

1936ko gerraren testu- guruan eginiko anker-keriak gogoratzeko gu-nea izango du aurrerantzean Udarregi Ikastolak. Faxistek eraildako herritarren artean, bazen hain zuzen, maisu bat, garai hartan Zubietako eskolako irakasle zena: Koxme Yagüez Beristain. Usurbilgo maisua faxistek erail zuten 1936ko urriaren 10ean Orioko mendatean, bere omenez jada ikastola atarian ikusgai duzuen plakak dioen moduan, “askatasuna eta demokrazia defendatzeagatik”.

“Haren familia aurkitzea zaila izan denez, ikastolak bere familia bihurtzea erabaki du”, berri eman zuten ikasleek, Udarregiko hezkuntza komunitatearekin, Usurbilgo Udalarekin eta oroimen historikoa berreskuratzeko lanean ari den Usurbil 1936 elkartearekin batera, ekainaren 9an ikastola atarian egin zuten ekitaldian.

Bi urteko ibilbidea jada jorratua duen herri bilgune honen harira, “ikastola gure herriko



Ekainaren 9an, 36ko gerran fusilatuta zuten irakaslea omendu zuten. Omenaldiari buruzko irudi gehiago noaua.eus web orrian topatuko dituzue.

KOXME YAGÜEZ GOGOAN

“Haren familia aurkitzea zaila izan denez, ikastolak bere familia bihurtzea erabaki du”

memoria historikoa lantzen hasi da”, berri eman zuten egitasmoan parte hartu duten DBH4-ko ikasleek. Lanketa hau plazaratu nahi izan zuten eta testuinguru horretan kokatu zuten baita, Koxmeren aldeko ekitaldia. “Haren alde-

ko memoriarako espazio hau sortu eta hura gogoraraztera, horretara bildu gara gaur”.

Gipuzkoan eraildako maisu bakarrenetarikoa

Panelen bidez 1936ko gerrak Usurbilen utzitako aztarna lantzari buruzko hainbat xehetasun plazaratu zituzten. Koxmeren bizitzari dagokionean, 1904. urtean jaio eta tren geltokian bizi zela, bere aita bertako arduraduna baitzen. Eta aipatu moduan, Zubietako es-

kolan irakasle lanetan jardun zuela eta 32 urterekin fusilatuta zutela. “Zarauzko hilerrian lurperatu zuten bere lagunek isilpean, halako kasuetan ezin baitzen dolu eta elizkizunik ospatu”. Nabarmendu zutenenez, “Gipuzkoan erail zituzten maisu bakarrenetarikoa izan zen, guztira sei izan zirelarik”.

Memoria historikoa berreskuratu eta transmititzeko konpromisoarekin bat egin zuten. Aurrerantzean, “gure ikastolan gerra zibilaz hitz egiten dugunean gaur egungo plaka eta Usurbil 1936 elkarte biltzen ari den informazioa ikasgai izango zaizkigu eta gure herrian gertatutakoa ikasliburuan agertuko ez bada ere, adierazi eta jakinaraziko da”. Helburu argi batekin; “bere herriko historia ez ezagutzen ez duenik” egon ez dadin.

Ikastola Egunari eskainitako ekimen astearen baitan egin zuten ekainaren 9ko ekitaldian, Usurbilgo Udaleko eta Usurbil 1936 elkartearen ordezkarien adierazpenak tartekatuta ziren; agur dantza, bertsoak...

“Eskerrik asko Koxme zuenganatzeagatik”

Oroimen historikoa berreskuratzeko lanean ari den Usurbil 1936 herri bilgune Udarregiko ekitaldian adierazi zutenenez, “ikertzen aritu gara, Koxmeren senideen bila eta ez ditugu aurkitu”. Horregatik, elkartearen ordezkari Arantxa Manterolak esker ona adierazi nahi izan zuen. “Eskerrik asko ikastola osoari Koxme zuenganatzeagatik”.

Paradoxikoki ikastola kokatua dagoen Gernika izeneko ibilbidean ospatutako oroimen ekitaldia, “memoria ariketa bat” dela nabarmendu zuten Manterolak, “memoria historikorekin lotutako ariketa bat”. Ikasleei zuzenduta

adierazi zuenez, “beharbada orain ez zarete konturatuko honek duen garrantziaz, baina seguru Koxme Yagüezen izena iltzatuta geratuko zaizuela buruan. Eta izenarekin batera gogoratuko duzue askatasuna defendatzeagatik hil zutela, eta hil zuten haiek gerora, zuten birraiton-birramonen eta zuten aiton-amonon askatasuna mugatu zutela eta urte askotan beldurrez bizi izan zirela, pentsatzen zutena esate hutsarengatik zigortu eta kasu askotan kartzelan sartzen zituztelako”.

Baina ez da halakorik gertatu, “herritar askok ez zuten ahaztu gertatutakoa. Eta duela urte batzuk herrietan ikertzen

hasi ziren. Beren amonari, izebari, gurasoei galdezka”. Baita Usurbilen ere. “Dokumentuak bilatzen, lekukotzak bilatzen... Gu ere horretan ari gara Usurbilen, gure arbasoei egin zieten ezin delako ahaztu, ondorengo belaunaldiei injustizia haien berri eman behar zaiela uste osoa dugulako”.

Zuzenean adierazi zieten ikasleei, “bai, hau dena zuei transmititzea gure betebeharrak dela pentsatzen dugu. Koxme bezala, milaka herritar gu aske izateko borrokatu zirelako”.

Alkatearentzat ere pozgarria izan da ikasleen ekimena

Ikastolak oroimen historikoa

berreskuratzeko bideratu duen lanketaren eskertza mezura batu zen Agurtzane Solaberrieta alkatea. Pozgarritzat jo zuen memoria historikoaren gaiaren bueltan ikasleak, etorkizuneko belaunaldia bildu izana. Duela bi urtetik hain zuzen, Usurbil 1936 elkarteak Udalarekin lankidetzan jorratu duen bidea nabarmendu zuten. 2020an hasita, “1936ko gerrak Usurbil eta batez ere usurbildarrak nola kolpatu zituen ikertu, herritarrek pairatutako sufrimendu hori berreskuratu eta balioan jartzeko proiektua” dela gogorarazi zuten.

Itoitz Rodriguez: “Txapelketa garaian zaindu beharra dago, ez dago besterik”

Itoitz Rodriguezek lesioa-tuta hasi du urtea. Horrek asko baldintzatu du bere prestaketa lana. Gauzak ondo, Espainiako Txapelketarako prest izango da. Ekainaren amaieran jokatu da eta iazko marka hobetzen saiatuko da. 4x400 taldekako erreleboan zilarrezko domina eskuratu zuen 2021eko txapelketan.

NOAUA! Denbora eta energia asko eskaintzen diozu atletismoari. Astero, zenbatetan entrenatzen duzu?

Itoitz Rodriguez: Ordutan azaltzea zaila da, astearen arabera ordu gehiago edo gutxiago egiten baititugu. Astean zehar, bost edo sei egunetan entrenatzen dugu.



Pandemiak atletismoko lehiaketa asko baldintzatu zituen. “Aurtengo txapelketak hobeto joango direla dirudi”.

Txapelketa garaian behintzat, parrandarako tarte gutxi izango duzue. Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharra dago, ezta?

Uda parte horretan denbora izaten dut pixka bat lasaia-ego ibili eta parranda batzuk egiteko. Txapelketa garaian zaindu beharra dago, ez dago besterik.

ITOITZ RODRIGUEZ

“Astean zehar, batuz beste, bospasei egunetan entrenatzen dugu”

Pandemiak zein neurritan baldintzatu du zure kirol jardue-

ra? Dagoeneko bueltatu zarete pandemia aurreko egoerara ala oraindik ez?

Pixkanaka lehengora itzultzen ari gara, baina joan zen urtean oraindik ere nabaritu genituen ondorioak.

Sailkatzeko zailtasun gehiago jarri zituzten. Txapelketetan parte hartzaile gutxiago

onartu zituzten eta iazko Espainiako txapelketa estalitik kanpo gelditu nintzen murrizketa horien ondorioz. Beste edozein urtetan, erraz sailkatuko nintzateke. Aurtengo txapelketak badirudi hobeto joango direla eta betiko parte hartzaile kopuruak onartuko dituztela.

“Laguntasun giroa nagusi da atletismoan”

NOAUA! Real Sociadadeko ki-dea zara gaur egun. Lehiakortasun handia dago zuen taldean ala, alderantziz, lagun giroan entrenatzen al duzue?

Itoitz Rodriguez: Realean daukagun gauzarik onena hori dela uste dut, giro oso ederra daukagula. Lagunak gara baina lehiakortasuna egon badago. Txapelketa batean nire kideetako bik nik baino hobeto egiten badute, txapelketatik kanpo gera naitenke. Hala ere, erreleboak ere

izaten ditugu eta taldeka ere egiten dugu korrika. Gainera, taldekide gehienok proba partekatzen dugunez, batera entrenatzen dugu. Egunerokoan laguntza hori izaten dugu, entrenamendu batzuk oso gogorrak izaten baitira bakarrik egiteko. Elkar lagunduta, giro oso polita daukagu. Ia proba guztiak bakarkakoak izaten dira, baina erreleboen kasuan, 4x100 eta 4x400eko erreleboak izaten ditugu. Zentzu horretan, Realean talde politikak ditugu.

Eta atletismoko beste taldekiko harremana nolakoa da? Giro sanoa al da nagusi?

Lagunak egiteko bidea erakutsi dit atletismoak. Probaren arabera, taldeen arteko lehia handiagoa izaten da. Nire kasuan, 400 metroak egiten ditugunez eta proba hain gogorra denez, denok sufrimendu hori partekatzen dugu eta ondo moldatzen gara. Agian, 100 metrotan edo luzera jautsian lehiakortasun puntu hori egon daiteke, gainontzeko kiroletan ikusten den

antzekoa.

Orokorrean, laguntasun giroa da nagusi, geure burua hobetzeko lehiatzen baitugu. Taldeka, beste kiroletan gertatzen den bezala, bi taldek dute hegemonia: Playas de Castellón (futboleko Villarreal) eta FC Barcelona. Hirugarren postua irekia egoten da gainontzekoentzat. Hor gaude gu, Numantino... Taldekako lehiakortasuna hor dago, baina atleten artean oso ondo moldatzen gara.

“14 urterekin hasi nintzen atletismoa serioago hartzen”

NOAUA! Beste kirol jarduera batzuetan ere arituko zinen txikitan. Noiz egin zenuen atletismoaren aldeko hautua?

Itoitz Rodriguez: 14 bat urterekin egin nuen jauzi hori. Pare bat urte lehenago ia-ia futbolera jo nuen, baina amak presioa egin zidan eta hautu egokia egin genuen atletismoarekin. Beraz, 14 urterekin hasi nintzen atletismoa serioago hartzen eta horretan finkatzen. Urteak aurrera doazen heinean, maila ere aldatu egiten da, eta orduan hasi nintzen gauzak askoz serioago hartzen.

Zein izan da orain arte lortu duzun markarik onena eta epe erdira, zein da zure helburu nagusia?

400 metrokoan marka hau daukat: 00:47:31. Eta begiz jota, Espainiako txapelketa daukat. Aurten, ekaina bukaeran izango da, Santixabelak baino lehentxeago, eta hori daukat buruan.

Noizbait Europako Txapelketa iristea gustatuko litzaidake, edota Munduko Txapelketa... Eta zergatik ez, Olinpiar Jokoetarako ere sailkatu nahiko nuke. Horiek lirarteke nire ametsak.

Zu aritzen zaren mailan aritzeko gaitasun bereziak behar dira, baina prestaketa lana ere oso garrantzitsua izango da. Zure ibilbidean, zer-nolako garrantzia izan dute entrenatzaileak?

Ezinbesteko garrantzia izan dutela esango nuke. Ordu asko egin ditut beraiekin. Batzuetan, gurasoekin eta lagunekin baino denbora gehiago eman dut beraiekin. Funtsezkoak dira eta izan dira nire ibilbidean. Hasieran entrenatzaile batekin ibili nintzen, gero Amerikako Estatu Batuetara joan nin-



Real Sociedadeko taldekideekin batera zilarrezko domina eskuratu zuen iazko Espainiako Txapelketan.

AMETSAK

“Noizbait Europako txapelketa iristea gustatuko litzaidake, edo Munduko txapelketa... Eta zergatik ez, Olinpiar Jokoetarako ere sailkatu nahiko nuke”

tzenean, eten egin zen harremana. Duela bi edo hiru urte entrenatzailez aldatzea erabaki

nuen. Orain nagoenarekin kalitatezko jauzia egin dudala uste dut, eta horren erakusgarri dira joan zen urtean lortu nituen emaitzak.

Atletismotik bizi al daiteke bat? Zure kasuan, zertan ari zara lanean?

Laster master bat egiten hasiko naiz. Nire helburua soinketako irakasle izatea da baina, horretaz gain, Realeko entrenatzailea ere banaiz. A-

tletismo eskola dauka Realak eta bertan nabil entrenatzaile lanetan 10-11 urteko umee-kin.

Etorkizunean, kirol munduari lotuta ikusten duzu zeure burua?

Goizetan irakasle eta arratsaldetan atletismoko entrenatzaile izatea gustatuko litzaidake. Atletismo eskolan edota helbidearekin, errendimendura bideratutako atletekin.

Laburrean

“Usurbilgo txoko bat? Aitzaga taberna”

1. Zenbaki bat.
17.

2. Kolore bat.
Gorria.

3. Kirolari bat bat.
Jeremy Wariner atleta.

4. Estadio bat hautatu ezazu.
Pekineko Txori Kabia.

5. Pelikula bat edo telesail bat.
Gladiator.

6. Liburu bat.
Africanos.

7. Abesti bat.
Mari (Su Ta Gar).

8. Sare sozial bat.
Instagram.

9. Usurbilgo txoko kuttunena zein duzu?
Aitzaga taberna.

10. Santixabelak ala Sagardo Eguna?
Sagardo Eguna.

11. Oporretarako toki bat aholkatuko diguzu?
Italia.

“Pandemia aurreko azken urteetan egin bezala antolatu ditugu aurtengo jaiak”

Bueltan dira udako jaiak giro betean, eta bi urteren ondoren, ohiko moduan ospatzeko aukera izango da. San Joanak izango dira lehen jaiak eta horiei buruz hitz egiteko aukera izan du NOAUA!k Alex de Miguel eta Unai Udabe Jai Batzordeko kideekin.

NOAUA! Pandemia osteko lehen ohiko jaiak izango dira aurtengoak. Negu aldean izandako aldaketekin, antolakuntza ohikoa izan da?

Alex de Miguel: Jaiak antolatzen hasi ginenean, erabaki genuen betiko jaiak beldurrik gabe antolatu behar genituela. Urteroko antolaketa egin, eta aurrerago neurriak zirela eta aldaketak egin behar baziren, egingo genituela, hori erabaki genuen. Pandemia aurreko azken urteetan egin bezala antolatu ditugu aurtengoak ere. Azken hilabeteetan pandemiaren kontuak hobera egin du, eta jada ez da gure eguneroko gai zentral bilakatu eta hori ikusita lasaitasunez jarraitu dugu.

Unai Udabe: Bigarren aukerarik gabeko apustua egin genuen dena ondo joango zelakoan, eta zorionez, hala izan da.

Momentu orotan izan duzue argi jaiak ohiko moduan antolatzea ala beldurrez aritu al zarete?

A. M.: Zaila da horren egoera aldakor batean zerbait antolatzen hastea, arrisku asko hartu behar dira eta beldur puntu hori momentu oro izan dugu.

Denbora guztian izan dugu buruan antolatzen aritu garen hori modu kontrolatuagoan egiteko aukerak ere aztertu behar genituela. Hala, neurriak zorrotz gero, aldaketa



Alex de Miguel eta Unai Udabe jai batzordeko kideek eman dizkigute aurtengo festen inguruko xehetasunak.

UNAI UDABE

“Bigarren aukerarik gabeko apustua egin genuen, dena ondo joango zelakoan. Zorionez, hala izan da”

handiegirik egin gabe, ekitaldiak lekuz aldatu edo sarrerak

jartzeko aukera buruan izan dugu.

Joan zen urtean ere, ohiko lekuan beharrean, Haur Eskolaren atzealdean egin genituen ekitaldiak leku gehiago dagoela kontuan izanda. Ikuspuntu hori ere kontuan izan dugu aurtengo egitaraua osatzeko garaian.

U. U.: Jaiak lekuz aldatzea azken orduko aldaketa modura uler daiteke eta ez du lan gehiagorik eskatzen. Plazan egin edota Haur Eskolaren atzealdean, muntaketa egiteko egunean leku bat prestatu beharrean beste bat prestatzea baino ez da, ez du arazo berezirik sortzen.

“Gazte dezente sartu gara Jai Batzordean”

NOAUA! Urte arraro hauen ostean, nola dago Jai Batzordea?

Unai Udabe: Batzuk Jai Batzordetik joan egin dira eta gazteak etorri dira atzetik. Gazte dezente sartu gara, ni barne. Ez dakit zenbat izango garen denera, batzuek implikazio gehiago izaten dute besteek baino, baina hamar bat pertsona izango gara ha-

sieratik bukaerarako prozesu horretan lanean aritu garenak.

Joan zen urtean festak egin zenuzten nahiz eta beste modu batera izan. Nolako balorazioa egiten duzue?

Alex de Miguel: Ikusita egoera zein latza zen, oso jai txukunak egin genituelakoan gaude. Kalezarko jaiak daukaten gauzarik politena herriko lehen

jaiak izatea da. Jendea gogoz egoten da jaietan murgiltzeko. Horrek arazo bat ere badu, lehenengoak izatean ez geneukan aurreko erreferentziarik gauzak nola egin pixka bat ikusteko eta horrek beldur pixkat ere ematen zigu. Leku berrian geunden eta berezia izan zen. Oso balorazio positiboa egin dezakegu ordukotik.

“Auzoarekin daukagun gertutasun hori askoz indartsuagoa da orain”

NOAUA! Aurten Jai Batzordea Belmonte Auzo Elkarteko azpitalde bilakatu da Partehartze Prozesuen ondotik. Horrek aldaketarik ekarri al du zuen egunerokotasunean?

Unai Udabe: Jaiak antolatze-rako garaian ez dugu aldaketa nabarmenik sumatu, baina auzoarekin daukagun gertutasun hori askoz indartsuagoa da orain lehen baino. Jaien egitarauaren gehiengoa guk antolatzen genuen eta ondoren, umeen egunaz Guraso Elkartea antolatzen zen. Aurten Auzo Elkartea daukagunez oinarri sendo gisa, edozein arazoren aurrean nora jo bageuekan. Harreman askoz sendoagoa daukagu eragileok.



Belmonte auzo elkarteak Kalezar biziberritzeko lanean dihardu. Jaietako antolatzaileek aditzera eman digutenez, auzoko eragileok “harreman askoz sendoagoa daukagu”. Argazkia artxibokoa da.

Partehartze prozesuen ondotik, Emakumeen Etxea kanpotik zaharberritu dute, baina barrua oraindik egiteke dago. Materiala beti bezala jasotzen ari zarete edo Emakumeen Etxe barruan daukazue?

Alex de Miguel: Eraikina kanpotik zaharberrituta dago, baina barnean egin beharreko obrak oraindik hasteke daude. Hasiera batean, ez genekien erabiltzeko aukerarik izango

ALEX DE MIGUEL

“Eraikina kanpotik zaharberrituta dago, baina barnean egin beharreko obrak oraindik hasteke daude”

genukeen. Aspaldi batean, eraikineko sarrera erabiltzen genuen materiala jasotze-

ko, baina urteak joan ahala eraikinak okerrera egin zuen eta arriskutsua zen sarrerara sartzea ere. Beraz, aurrez fabrikatutako almazen batzuk alokatzen genituen gauzak gorde ahal izateko. Aurten, materiala uzteko aukera eman digute bertan. Ez dugu erabiliko obra egin ostean erabiliko dugun bezala, baina behintzat, materiala uzteko lekua

izango da.

Datorren urterako asko arinduko dizue lana horrek?

U. U.: Plazan ospatzen dira festak eta Emakumeen Etxeko atariak plazara eramaten du. Beraz, ezin leku hobea da jaietako materiala eta auzo ekipamendu guztia sartzeko. Askok erraztuko digu lana horrek.

Umeen Egunarekin amaituko dira festak

Ekainak 26 igandea

10:00 Umeen Krosa.

11:30 Jolasak.

16:00 Tailerrak.

18:30 Txokolatada.

19:00 Dj GorkaMendiren eskutik dantzaldia.

Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.



Goiz parteko krosa eta gero, jolasean aritzeko aukera ugari izango dira.

Auzotarren arteko norgehiagoka

Auzotarren arteko herri kirol erakustaldia egingo dute Kalezarren urtero legez. Ostiralean izango da arratsaldeko bostetik aurrera. Deialdia luzatu dute Jai Batzordetik ahalik eta auzotar gehien anima daitezen partehartzera.

Bi urte atipikoren ostetik, San Joan jaietako ohiko egitaraua bueltan da, eta horrekin batera, jende gehien erakartzen duen ekitaldietako bat: herritarren arteko herri kirol erronka. Plazan egingo da ohiko moduan erronka, eguraldia lagun. Auzotarrak izango dira protagonista nagusiak, ez herri kiroleko profesionalak eta euren erakustaldia. Azken urteetan Kalezarren formatu horren aldeko apustua egin dute



Toka txapelketa San Joan egunean jokatu da, eguerdi partean.

HERRI KIROLAK

San Joan egunean, arratsalde partean, auzotarren arteko herri kirolak jokatu dira

eta aurten ere bide horri jarraituko diote.

Belaunaldien arteko topagune

Jai Batzordeko gazteek hartu ohi dute parte herri kirolean eta belaunaldien arteko topagune izatea gustatuko litzaieke aurtengo proposamena. Lokotxak, artoa aletzea, sokatira, trontza, txingak, sagar biltzea eta korrika arituko dira

auzotarrak bi taldetan.

Zirkuito bat antolatuko dute eta bi talde egin nor baino nor gehiago. Partehartu nahi izanez gero, Kalezarreko Jai Batzordearekin kontaktuan jarri beharko da eguna baino lehen, taldeak antolatu ahal izateko.

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Ondo pasa
San joanetan!!!

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Atallu pol. atallu, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Oilasko biltzaile txikiak aurtengo protagonistak

Herrian zein auzoetan tradizio handiko jarduera izan ohi da oilasko biltzaileen eskea eta ondoren egiten den bazkaria. Kalezarren, gaztetxoak ibiliko dira eskean auzoan barrena. Aurten, oilasko biltzaile txikiak bakarrik aterako baitira oilasko bila. Larunbatean izango da hori, goizeko 10:00etatik aurrera.

San Joanetan badute euren tradizio propioa ere, San Joan Bezperako Eskea. Helduen bilgune izan ohi da San Joan Bezperako Eskea eta lau eguneko jai batzuentzat gehiegizkotzat jo dute bi tradizioak mantentzea. Ibilbide bera egiten zutela ikusita, hurrei bide eman diete tradizioarekin jarraitzeko eta helduek ohiko San Joan Es-



Ekainaren 25a oilasko biltzaile txikien eguna izango da. Goizeko 10:00etan abiatuko dira kalejiran.

BAZKARIRAKO TXARTELAK

“Oilasko biltzaile txikien bazkarirako txartelak Kaffa kafetegian ipini dituzte salgai”

kea baino ez dute egingo. “San Joanetako Eskea eta Oilasko

Biltzaileen ibilbidea berdinak ziren eta askotan, jarraian tokatzen ziren bi egunak gainera. Gehiegizkoa zela iruditu zaigu eta hurrek beste ibilbide bat egiten dutenez, egokiago ikusi dugu guk San Joan Eskea egitea bere ibilbidearekin eta Oilasko Biltzaile txikiek euren haien ohiko ibilbidearekin”,

zehaztu du Alex de Miguel Jai Batzordeko kideak.

Arratsaldean, patata tortilla lehiaketa

Sarrerak erosi egin beharko dira oilasko biltzaile txikien bazkarira joan ahal izateko. Kaffa kafetegian daude salgai jada, nahi dutenen eskuara. Bazkaria Jai Batzordeko kideen esku egongo da. Haur eta gurasoen artean osatuko dute bazkaria auzoko plazan.

Arratsaldean, berrikuntza modura, aspaldian egin ohi zen ekitaldi bat berreskuratu dute: patata tortilla lehiaketa. 19:30etik aurrera izango da plazan eta parte hartu nahi dutenek hasi baino lehenengo izena eman beharko dute bertan.



LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.

INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKUNTZA

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 37 70 01
admon@larranagaplasticos.com

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

Ondo pasa
San Joanetan!

ANDER
ARANZAZISTROKI

industria garbiketarako
sistema eta produktuak

© 667 680 236

San Joan jaiak, egunez egun

Ekainak 23, osteguna:

San Joan bezpera

- 15:00 San Joan eskearen irteera.
- 22:00 San Joan sua.
- Ondoren, eskearen jarraipena.

Ekainak 24, ostirala:

San Joan Eguna

- 11:00 Meza Nagusia.
- 12:00 Toka eta hamaiketako.
- 13:00 LOPEren animaliak.
- 17:00 Auzotarren arteko herri kirolak.
- Ondoren, buruhandiak.
- 19:00 Sardina jana.
- 22:00 Kontzertuak: Andoni Ollokiegi bakarlaria, Kinada taldea eta Kilimak taldea.

Ekainak 25, larunbata

- 10:00 Oilasko biltzaile txikien irteera.



Herriko dantzariak larunbatean arituko dira. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da ikuskizuna.

- 14:00 Oilasko biltzaile txikien bazkaria.
- 16:00 Mus txapelketa (izen ematea 15:30ean itxiko da).
- 17:00 Herriko dantzariak. Jarraian, buruhandiak.
- 19:30 Patata tortila txapel-

- keta.
- 00:00 Gogo-Gozo erromeria. Jarraian, Dj Hama.

Ekainak 26, igandea:

Umeen Eguna

- 10:00 Umeen Krosa.

- 11:30 Jolasak.
- 16:00 Tailerrak.
- 18:30 Txokolatada.
- 19:00 Dj GorkaMendiren eskutik dantzaldia. Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.



Ugartondon pisu berria erosi badezu eta lehendik zeneukan etxea saldu edo alokatu nahi badezu...deiguzul!



G15 USURBIL

HIGIEZINA | INMOBILIARIA
688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL



2. Eskuko testuliburuen azoka

Adi!

DBH3 - DBH 4 - BATX1 - BATX2

Entrega eguna	Ekaina 21 16:00 / 18:00
Liburuak erosi	Ekaina 23 16:00 / 18:00
Dirua jaso	Ekaina 24 16:00 / 17:30

Oharra: Guraso elkarteko bazkideak ez direnentzat entrega eta liburuak erosi 17:30 / 18:00 izango da

Tokia: Larrekoetxe eraikinean

ORIENTEKIDE
Guraso Elkarte

Erosketak euskaraz ordaintzea bermatzea eskatu du Aztarririkak

Ordaintzeko gaztelaraz edo ingelesez ere egiteko aukera, baina geure hizkuntzan, euskaraz ez. Ezin ordaintzeko euskaraz egin Belartzan kokatua dagoen Decathlon saltoki ezagunean. Hizkuntz eskubideen Behatokiak sare sozialen bidez ere ohartarazi du egunotan, “enpresa honek maiatzaren 5ean, gertatutakoaren berri eman zutela jakinarazi zutela adierazi zigun. Ekainaren 8a dugu eta ez dute neurririk hartu”.

Egoera honetan, Aztarrিকা Usurbilgo Gazte Asanbladak hizkuntz eskubideen aldeko ekintza bideratu zuen ekainaren 9an aipatu saltokian, “euskaraz babestu, eskubideak defendatu” aldarriripean. Erreklamazio orriak eskatzen eta betetzen aritu ziren saltoki barruan. Gero kanpoan atera zuten talde argazkia, orriok



Usurbilgo Gazte Asanbladak hizkuntz eskubideen aldeko ekintza bideratu zuen ekainaren 9an Decathlonen atarian.

AZTARRIKA

“Euskal Herrian ezin bada euskaraz bizi, non biziko da euskara?”

eskutan zituztela.

Ekimenaz sentsibilizatzen

aritu ziren denda atarian, orriak banatu zizkieten erosketak egitera zihoazenei. Orriok batek baino gehiago hartu zituen. Erosketak egin ostean erreklamazioa aurkeztera bueltatu zenik ere izan zen.

“Euskararen aurkako eraso da”

Aztarrিকা Gazte Asanbladak Decathlon euskaraz ordaintzeko aukera ezabatu izana ez dela kasualitate hutsa diote, “euskararen aurkako eraso da”, eta jokamolde honekin, “beste behin ere euskaraz bizi nahi dugunon hizkuntz eskubideak” urratu dituztela salatu dute. Eta urraketok etengabeok direla. “Ez gaudela kasu isolatu baten aurrean, inposizio desberdinen bitartez euskara marjinalizatzeko estrategian urratsak etengabeak izaten ari dira; euskara sektore ezberdinetatik erasotuz”.

Testuinguru honetan galdeztzen dutenez, “Euskal Herrian ezin bada euskaraz bizi, non biziko da euskara? Euskaldunok harrotasunez eta konplexurik gabe gure hizkuntza defendatu eta erabili behar dugu”.

Pentsiodunen bizikleta martxa

Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak antolatutako 1. Bizikleta Martxa Donostian abiatu eta berehala Usurbil zeharkatu zuen aste hasierako lehen etapan. Euskal Herrian barrena ibiliko den ekimenak gutxienez 1.080 euroko pentsio duina aldarrikatuko du bi asteotan. Ekainaren 25ean amaituko dute 12:00etan, Donostiako Alderdi Ederretik abiatuko den manifestazioarekin.



Bizikleta martxa ekainaren 25ean amaituko da Donostiako Alderdi Ederrean.

ZENDOIA ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64

IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Antxeta
TABERNA

egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, hamburgesak..
paellak enkarguz!

619 40 91 98
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Santuenea bizigarriagorako Auzo Plana prest

Auzoaren datorren hamarkadako etorkizuna marrazten duen Auzo Plana eskuartean du jada Santueneak. Ekainaren 10ean aurkeztu zuten bidelagunen, auzotarren artean; bertako bizilagunak, Usurbilgo Udalak eta Hiritik At kooperatibak bideraturiko partehartze prozesuak ahalbidetu du lanketa osoa.

Auzo Plan honen diseinua auzotik bertatik sortu da. Abiapuntua iazko udazken partean egindako galdeketa izan ziren. 73 bizilagunek parte hartu zuten. Bizi-kalitate oneko auzoa zela nabarmendu zuten, baina zer hobetua bazela mugikortasunari, irisgarritasunari edota auzoari egin zitekeen eskaintza kultural eta ekonomikoari dagokionean. “Hasieran ez genekien planteamenduak zentzua zuen edo ez, baina poliki-poliki eta batez ere etengabe auzokideen babes eta engaiamendurekin, uste dugu iritsi garela epe ertaineko plan mamitsu eta eraginkor bat formulatzera”, nabarmendu zuten Auzo Planaren aurkezpenean prozesua dinamizatu duen Hiritik At kooperatibako ordezkariak. Urtebete honetan, besteak beste, bizilagunei galdeketa egiten aritu dira, auzoan zehar txangoak egin



Ekainaren 10ean aurkeztu zuten plana auzotarren artean.

AUZO PLANA

Informazioa eta dokumentazioa atari honetan eskura daiteke: usurbil.eus/eu/santuenea

dituzte baita, Santueneak dituen beharrak identifikatzeko. Eta sarritan bildu dira. Talde eragile bat egon da prozesua sustatzen, eta iragan asteko Auzo Planaren aurkezpenean nabarmendu zuten, “desegin egingo da”. Jarraipen batzorde batek ordezkaturiko du aurrerantz. Bizilagun orok parte

hartu ahal izateko irekia izango den bilgune honek Auzo Planeko garapenaren jarraipen lana egingo du.

Alkatearen zorionak

Santueneak “konprometituta segitzen badu, Udalak modu berean erantzungo du”, adierazi zuten Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak iragan ostiraleko Santueneako Auzo Planaren aurkezpenean. Santueneako auzotarrak zoriondu zituen, orain arte egindako lanagatik. Zioenez, gai ezberdinei buruz “aritu zarete hausnarrean eta hizketan, nor be-

retik emanez eta bestearenak adi jasoz. Horregatik eskerrak eman modu batera edo bestera prozesu komunitario honetan parte hartu duzuen auzotarroi, eta nola ez, Hiritik At kooperatibari prozesu hau hain ondo dinamizatzeagatik”.

Auzo Planaren nondik norako nagusiak lerrootan dituzue. Auzo Plana eskutan, orain ekarpenak jasotzeko epea zabalik izango dute Santueneako bizilagunak. Bidean egindako lanketari buruzko informazio gehiago eta dokumentazioa, atari honetan eskura dezakezue: usurbil.eus/eu/santuenea

Mugikortasuna: oinezkoak lehenetsi nahi dira

Oinezkoak lehenetsi nahi ditu Auzo Planak, eta haien espazioa berreskuratzeko auzoan joan etorrien eta aparkatzeko guneak berrantolatzea proposatzen dute. Horretarako aparkalekua sortzea planteatzen dute, etxebizitza multzoa amaitzen den zonaldean, San Esteban aldera igotzeko errepidearen ondoko magalean, eta auzo barruko zenbait es-

pazio kotxez hustutzea; besteak beste, eskubaloi plaza aldera doazen kaleak ibilgailuen joan etorrientzako are gehiago mugatu eta oinezkoen lehenetsia ematea. Ibai ondoko pasabidea, Txokoalderekin lotzen duena, oinezko eta bizikletentzako pasabidea izatea nahi dute, eta Zubieta aldetik etorriko litzatekeen bidegorriak eremu honetatik jarraipe-

na izatea.

Aipatu moduan, oinezkoak lehenetsi nahi ditu Santueneako Auzo Planak, eta oinezkoen segurtasuna. Ibilgailuak igaro daitezkeen kaleetan zenbait lekutan zoladura aldatzea ere proposatzen dute, oinezkoen segurtasunerako, eta auzo zeharkatzen duen kale nagusietako bat, Ibai Ondo elkarte ondokigartzen

dena, egun noranzko bakarra duena, bikoia izatea etorkizuneari.

Autobus zerbitzuen zeharbide ere bada Santuenea. Aialde Berri ondoko markesina lekuz aldatzea ere proposatzen dute. Zubieta alderako bidea hasten den zonaldera hain zuzen eta bidearen alde banatan markesina bana eraikitzea.

Irisgarritasun irizpideak hartu dira kontuan

Auzo bizigarriagoa bilakatzeko bidean, etxeen azterketa bat egin dutela aipatu zuten Hiritik At kooperatibakoek. “Gure planean txertatu dugu”. Bi kontu nabarmendu zituzten; batetik, etxeen arteko pasabideak irisgarri bilakatzeko eta bizileku guztiak igogailua jartzeko aukera ere izatea.

Ekipamenduak

Frontoi ondoan dagoen lokala biltegi moduan erabiltzen dute egun. Inguruari beste erabilera bat ematea ere proposatzen dute, frontoi ondokoa “zaintzen plaza” izatea, aire librean kirola egiteko parke txiki batekin. Eta lokalei dagokienez, beheko zatia auzotarrentzako izatea, eta goikoa udal ekipamendu gisa baliatzea. Santuenea gainera, erriora proiektatzea, irekitzea ere galdetegietan egin den proposamenetako bat izan da. Hala, auzora sartu eta eskubitara biratzen dugunean Txokoalde aldera jotzeko, bide horretan, erriberan, Oria ertzeko lurretan parke bat egokitze asmoa ere aipatu zuten ostiraleko aurkezpenean. Eremu horren erabilera, auzotarren



Auzo bizigarriagoa bilakatzeko bidean, etxeen azterketa bat egin dute.

ESPAZIO PUBLIKOAN

“Santueneako bizilekuen arteko irisgarritasuna hobetzeko pasarelak egitea proposatu da”

jarraipen batzordean zehaztu nahi dute.

Azkenik, bizilekuen arteko irisgarritasuna hobetzeko pasarelak egitea ere proposatu da. Espazio hauen buelta itxita, biltegiak sortuko lirakeke, etxeetan egon daitekeen espazio faltari aurre egiteko.

Auzo ekonomia

Santueneako jarduera ekonomikoei eustea da beste erronketako bat. Egun auzoak saltoki bat du, galdu ezintzat jotzen dutena. Itxiera arriskua egongo balitz, egoera horri begirako neurriak hartzea ere proposatzen dute.

Trantsizio energetikoa

Hiru lan-ildo jorratu nahi dituzte arlo honetan: bizilekuen fatxaden efizientzia energetikoa hobetzea, led argiteria publikoaren sarea osatzea, eta auzoa bera energia komunitateen egitasmoan sartzeko, instalakuntza fotovoltaiako bidez.

Espazio publikoa

Ekipamenduen atalean aipaturikoari berriz helduta, frontoi ondoko eremua, “zaintzen plaza” deiturikoa Santuenea erdigunearekin gehiago lotzea litzateke, eskuartearen duten beste erronketako bat. Lotunea estutzeko ekipamendu publikoak, haur parkea eta komun publikoak aipatu zituzten. Baina aurtengoan, hurrengo hila-beteetan bereziki beste espazio bat izango dute hizpide nagusi Santuenean; eskubaloia plaza. Urtebeteko parte hartze prozesuan zehar, gaiak eztabaida piztu duela adierazi zuten ostiraleko Auzo Planaren aurkezpenean. Dagoen moduan utzi behar ote den, eskuhartzerik egin bai edo ez... Horri begira, galdeketa bat antolatzea proposatu dute. Galdeketa abenduan egingo lukete, urtea amaituurretik. Udazkena galdera bera definitu eta lantzeko baliatzea proposatu dute, helburu argi batekin; eskuhartzerik egin behar den edo ez erabakitzeke. Erantzuna ezezkoa balitz, dagoen moduan utziko lukete eskubaloia kantxa. Baiezkoa balitz, zer nolako erabilera eman definitu beharko lukete.

Santixabel jaien bezperan, hainbat ohar

Umeen Eguneko

ginkana eta erronka

Izen-ematea:

Ekainak 18ra arte

Uztailaren 1ean, LH 1-4koentzako ginkanan nahiz LH 5-DBH2 artekoentzako “erronkan” parte hartu nahi dutenek helbide honetara idatzi dezakete: santixabelak.umeen.eguna@gmail.com

Zikiro-jana

Txartelak eskuratzeko eguna:

Ekainak 19, igandea

■ 12:30 Uztailaren 2an 14:00etan Askatasuna plazan

ospatuko den zikiro-janerako txartelen salmenta Aitzaga Elkartearen, Askatasuna plaza aldetik sartuta. Prezioak: helduek, 30 euro. Ikasleek eta langabetuek, 20 euro.

Jubilatuena bazkaria

Txartelen salmenta:

Ekainaren 20tik 22ra

10:00-13:00 Uztailaren 3an 14:00etan Atxega Jauregian ospatuko den jubilatuen bazkaritarako txartelen salmenta ekainaren 20tik 22ra (edo agortu arte) Gizarte Zerbitzuen egoitzan, baita hiru jubilatuen

elkarteotan ere: Aginagako Arraten, Santueneako Gure Elkartearen eta Usurbilgo Gure Pakean.

■ Prezioak: 20 euro 60-65 urte artekoentzat, 10 euro 65 urtetik gorakoentzat.

■ Bazkaritarako baldintzak: gutxienez 60 urte beteak izatea edo aurreko betetzea eta Usurbilen erroldatua egotea.

■ Salbuespenak: 60 urte baino gutxiagoko pertsonak joan ahalko dute bazkariaren kostu osoa ordainduz, beti ere, bikoiteak baldintza orokorrak bete-tzen baditu eta bera ere herrian

erroldatuta badago. Aparteko egoera berezietan, “Udalak, kasu kasu, erabakiko du”.

■ Menua:

-Dastaketa: urdaiazpiko iberikoa, itsaski entsalada epela, txipiroizko kurruskia, ondoen hostorea.

-Aukeratzeko: itsasapoa labean olio-errearekin edo idi zatia plantxan hornigaiarekin.

-Postrea aukeran: tarta dastaketa, etxeko mamia edo fruitu gorrien yogurt krema.

-Edariak: ardo beltza, ardo txuria, sagardoa, ura, kafea.

Zumarte Musika Eskola: “Ikasle guztiak parte hartzeko aukera izango dute”

Zumarteko piano bakar-lari eta talde instrumental desberdinek kontzertua eskaini zuten aurreko astean Urnietako Saroben. XVI-II. Soinurbil Musika Asteko trukaketa kontzertuaren itzulerako emanaldia izan zen hura. “Ikasleentzat garrantzitsua da beraiek egindako lana herritik kanpo ere plazaratzea”, musika eskolatik azaldu digutenez. Orain ikasturte osoan egindako lana herrian bertan plazaratzeko garaia iritsi da. Larunbat honetan, ZumartEgunean.

Larunbat honetan, hilak 18, goizeko 11:00etan hasi eta gaueko 21:30ak arte musika eskolako ikasle gazte zein helduak zuzenean arituko dira herriko txoko ezberdinetan. “Bakarlariak, talde instrumental txiki-ertain-handiak, musi-



Zumarte Musika Eskolakoak Urnietan aritu ziren aurreko astean.

ZUMARTEGUNA

“Larunbat honetan musika eskolako ikasleak zuzenean arituko dira herriko hainbat txokotan”

ka txokoko ikasleak, abesbatzak eta kalejirak izango ditugu herrian zehar”.

Bi gune

Bi gunetan egingo dira emanaldiak, goizeko saioak Zumarteko sarrerako plazaxoan egingo dira eta arratsaldekoak berriz, frontoian. “Gune bakoitzean kontzertuak txanda desberdinetan antolatu ditugu, ikasle guztiak parte hartzeko aukera izateko”.

Larunbat honetan, musika bizi eta musikarekin gozatzeko aukera paregabea

Goizeko egitaraua

(Musika eskolako sarreran)

- 11:00 Alboka Taldearen kalejira musika eskolatik hasita.
- 11:45 Lehenengo txanda: Albokako ikasleak, Dultzainako ikaslea, Ukeleleko ikasleak, Biolin bakarlari eta Taldeak.
- 12:15 Bigarren txanda: Saxo bakarlariak, Piano bakarlariak, Biolin-flauta-gitarra taldea.
- 12:45 Hirugarren txanda: Klarinete bakarlariak, Klarinete,

flauta eta eskusoinu taldea, Piano Taldeak, Klarinete taldea.

- 13:15 Laugarren txanda: Zumarte Txiki Abesbatza (10 min), Piano-klarinete bikotea, Tronpeta-Tronboi taldea.

Arratsaldeko egitaraua (frontoian)

- 17:30 Trikitixa, txistu, pandero, haizezko eta perkusioko ikasleen kalejira frontoitik hasita.

- 18:30 Lehenengo txanda: Musika Txokoa 1-2 Taldea, Te-klatu Taldea, Musika Txokoa 3-4 Taldea.
- 19:30 Bigarren txanda: Trikitixa-Pandero taldea, Gitarra bakarlaria, Zumarte Abesbatza, Zumarte Gazte Abesbatza.
- 20:30 Hirugarren txanda: Eskusoinu Taldea, Elektr@kustiks Taldea, Amsterdam Taldea, Elektrik Kids Taldea.

Udajolaseko guraso bilera

Udajolaseko partaideen gurasoentzako argibideak ekainaren 21ean eskainiko dira, arratsaldeko 17:00etan Sute-gin. 4-12 urte arteko 200 haur eta gaztetxok parte hartuko dute eta ekimena NOAUA!-k eta Udalak antolatu dute elkarlanean. Udajolas uztailearen 4tik 29ra egongo da martxan, 9:30-13:30 artean.

Auzolanerako deia Andatzan

Aurreikusitako baino lan gehiago dago Andatzan, lubakiak berreskuratzeko. Hala adierazi dute oroimen historikoaren aldeko lanketan ari den Usurbil 1936 elkartetik. Auzolanerako bolondresak behar dituzte, astelehenetik ostiralera (9:30-14:00-15:00-18:00) lanean jarduteko. Interesdunek bideotatik eman dezakete izena: usurbil1936@gmail /616 482 521.

Euskara eta aisialdiko udal dirulaguntzak

Bi deialdion oinarriak kaleratu ditu Usurbilgo Udalak ekainaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Euskara ikasten ari direnek nahiz aisialdiko begirale edota zuzendari tituluak eskuratzeko ikastaroak egin dituztenek dirulaguntzok jasotzeko eskabideak aurkeztu ahalko dituzte ekainaren 27tik uztailearen 8ra.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4 RPS: 19/22 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe bat bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Puntapax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean

lan egiteko Olarrondo jatetxean. 626 686 036

Santuenean adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona euskalduna behar da. Astelehenetik ostiralera, goiz eta arratsalde, eta larunbatean goizez. Adinekoak zaintzeko titulua izatea baloratuko da. 652728446

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua jai.

30 orduko lanaldia. 943369139.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Adinekoak eta haurrak zain-tzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo astebukaerak interna moduan aritzeko disponibilitatea daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. 695 184179/anesoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketarako lanak egiteko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaqucamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak dauzkat. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

24 hazbeteko telebista berria salgai. Erabili gabea. 646 185 716.

Pilota partidak Usurbilen

Ekainak 17, ostirala 18:30h

■ Senior semifinalak (49. Usurbilgo txapelketa)
Astiz-Aranguren vs. Apezetxea-Olaetxea
Santxo-Urruzola vs. Fuente-Azpiroz

Ekainak 19, igandea, 11:30h

■ Infantil semifinalak (Usurbilgo txapelketa)

Goardiako farmaziak

Osteguna 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 17 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 18 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 20 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 21 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Osteguna 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 24 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 26 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda ekaina

17 ostirala

- **Ziortzaren kanpaldia: guraso bilera** 18:00etan Sutegin.
- **Kantu afaria** Usurbilgo Euskal Kantu Taldearen eskutik 20:30ean Patrin. Izen-ematea: 688 69 03 61 (Iban).

18 larunbata

- **II. Uxue Trail.** 09:00etan Usurbilgo frontoian. Izen ematea: kronoak.com
- **ZumartEguna 2022.** Egun guztian zehar Musika eskolako ikasleak eta irakasleak herriko leku desberdinetan arituko dira.

19 igandea

- **Uztailaren 2ko zikiro janerako txartelen salmenta** 12:30ean Aitzaga Elkartearen. Prezioak: Helduek, 30 euro. Ikasleek eta langabetuek, 20 euro.

II. Uxue Trail lasterketa

Uxue Trail mendi lasterketaren bigarren edizioa larunbat honetan egingo da. Animatzen diren kirolariak goizeko 9:00etan abiatuko dira, Usurbilgo frontoitik. Parte hartzeko lau aukera ezberdin egongo dira.

Ekainak 18 larunbata

- 20 kilometroko Uxue Trail luzea.
- 11,5 kilometroko Uxue Trail motza.
- 7,5 kilometroko Ipar Martxa.
- 5,5 kilometroko Uxue paseoa izenekoa.

Dortsal solidarioa

Lasterketa amaieran opariak zozketatuko dituzte. Ekimenean zuzenean parte hartu gabe ere, dortsal solidarioa erosi ahalko



Lau ibilbide ezberdin daude aukeran. Laburrena 5,5 kilometrokoa da, luzeena 20 kilometrokoa.

da. Izen ematea eta informazio gehiago, kronoak.com atarian.

Uxueren gaixotasun arraroari buruzko informazio gehiago 22q13.org.es atarian jaso daiteke.

Ostiral honetan, kantu afaria Patrin

Aurtengo ikasturtea afari baten bueltan abestuz borobildu nahi du Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Ostiral honetan, 20:30ean hasita Patri jatetxean.

Menua

Urdaiazpiko-kroketak; entsalada, gazta urdina eta intxaurrekin; etxean egindako bakailao brick-a; entrekota piper gorri eta patata frijituekin; laranja-budina txokolate

bero eta izozkiarekin; kafea/infusioa; urteko ardoa/sagardoa.

Izen-ematea

Telefonoz, hona deituz: 688 69 03 61 (Iban). Kontuan hartu kopurua mugatua izango dela. Bestalde, kantu-liburuxka eramateko gomendioa luzatu dute. Afarian bertan edota, aurrez, NOAUA!-ren egoitzan eskuratu ahal izango duzue.

Datozenak

'Urak aske' dokumentala

Ekainaren 16an, "Urak aske presakendu, ibaiak berreskuratu" dokumentalaren proiektzioa antolatu du Anerrekak 18:30ean Sutegin. Ordubete pasatxoko emanaldian, Artikutzako urtegiari buruzko hustuketa izango du hizpide. "Urtegi batetik bi milioi metro kubiko ur hustea, desagertzeko zorian dagoen animalia txiki bat babesteko. Hori izan da Enobietako urtegia kentzeko lan egin dutenen ahalegina. Eta ametsa beteta, muturluze piriniotarrari babesleku seguru bat eman diote. Artikutzan gertatu da istorio harrigarri hori, duela mende bat Donostiak Nafarroan erositako finkan. Gaur egun, Kantauri kostaldeko baso natural onenetako bat han dago".

Bego Zubiak Gallastegi zuzendariak nabarmenduko duenez, "ibaietan utzitako hormatarrek biodibertsitateari hesia jartzen diote eta haien eraisketek etorkizunean planeta bizigarriago bat imajinatzeko aukera ematen dute".



Bego Zubiak zuzendu du 'Urak aske' dokumentala.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

BONEX
REHABILITACIONES S.L.

ERAIKINAK BIRGAITZEKO
ETA HOBEKUNTZA ENERGETIKOAK
LORTZEKO SOLUZIOAK

- * Impermeabilizazioak
- * Isolamendu termikoa
- * Tellatuak
- * Mantenimendua
- * Fatxadak

Zubiaurrenea Kalea 3, 20170
Usurbil | Tlf: 625077916
info@bonex.es

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Une oro,
Freskagarri Naturala!



Ondo
Pasa
an
Joanak!

Ureko Zubiak zuzendu du Urak aske
kusentzekoa.



SAIZAR

Sagardoa · Sidra Natural

www.sidrassaizar.com



USURBILGO

TON- BOLA

Eskuratu zure bonua!

Establezimendu bakoitzak 7
bonu saritu dauzka.

30 €-ko bonu 1
20 €-ko bonu 1
10 €-ko 5 bonu

hurbilag 
USURBILGO MERKATARITZA
OSIJA ARNE EDEGOTIA

Usurbilgo
Udala
gertu@go

Enskadi, mugalarazki biko erabil

ELIZKO JAGULARITZA  GORIERNO VASCO